

Euskal Herriko kotxe istripurik larriena

17 hildako eta 49 zauritu Erletxen

Lainoa izan zitekeen Zornotzatik gertu 24 kotxeren artean gertatutako istripuaren arrazoia

Hamazazpi lagun hil eta 49 zauritu ziren atzo goizean Donostiarako bidean A-8 Bilbo-Behobia autopistan hainbat autok elkar jo zutenean. Lainoagatik gerta zitekeen istripuan 24 auto gertatu ziren kaltetuta, horietatik 18 erabat kiskalita.

BILBO

Hamazazpi pertsona hil eta 49 zauritu ziren atzo goizeko hamaikak hogeitabost gutxiago aldera Donostiarako bidean, Euskal Herrian izan den kotxe istripurik larrienean. Ez-beharra Bilbo-Behobia autopistako 102. kilometroan, Zornotzako Erletxe bihurgunearen parean gertatu zen. 24 kotxe izan ziren kalteturik eta horietatik 18 erabat kiskalita geratu ziren.

Istripua goizeko ordu horietako behelainoak edo ke hodei handi batek eragindako bisibilitate eskasak eragin zezakeen, Ertzaintzaren iturriek aditzera eman zuten. Iturri berberen arabera, errepide ondoan enpresa batek erretako produktuen kea izan zitekeen ezbeharraren arrazoa.

Bizkaiko Zornotza eta Galdakao artean gertatu zen istripua. Dirudieenez, bi autok elkar jo eta autopistako bi karrilak hartu zituzten. Horien atzetik zetozen autoek ezin gelditu eta haien kontra jo zuten bata bestearen atzetik eta autoek zutabe handi bat osatu zuten. Zenbait autotako erregaiaren gordailuak lehertu egin ziren sute handi bat eraginez. Ondorioz, 18 auto erabat kiskalita geratu ziren.

Auto horietan zihoazen pertsona gehienek ezin izan zuten kotxetik irten beste auto batzuren artean sartuta zeudelako, burdin artean. Istripua ikusi zuten lekuko arabera, kotxeen barnean harrapatuta geratu ziren lagunek laguntza eske oihukatu zuten eta beste batzuk, gorputza sutan zutela atera ziren autoetatik.

Vasco Presseko iturrien arabera, bere lanera zihoan Borja Artiach Euskal Telebistako kamara laguntzaile gaztea suak kiskalita hil zen bere autotik ezin izan bait zuen irten.


IDENTIFIKATZEKO ARAZO HANDIAK Istripuan 16 lagun hil ziren eta kopuru honi Jose Herrero del Rioren heriotza gehitu behar zaio. Herrero del Rio Galdakaoko ospitalerako bidean hil zen. Ertzaintzaren iturriek hildako zenbaitzuz nortzuk izan daitezkeen jakin bazekitela adierazi arren, lehen orduetan ez zuten izenik eman nahi izan zehatz frogatu arte.

Hala ere, 19.15etan zortzi hildakoren izenak ezagutzera eman zituen Polizia autonomoa. Zenduak, Jose Herrero del Rio eta Borja Artiachekin batera, honoak ziren: Pedro Lizarralde Gonzalez, Isabel Pildain Lazpita, Marcelino Granada San-



Kotxeek elkarren kontra jo eta autopistaren bi aldeetan geratu ziren.

ANDER GILLENIA



I. MARTIARENA



Istripua Erletxeondoan gertatu zen, Zornotzatik gertu.

ANDER GILLENIA

chez, Jesus Lopez Areta, Maria Angeles Basaguren Velaz, eta Maria Angeles Lopez Basaguren.

Iturri berberen arabera, hildakoen identifikazioa poliki joango da. «Hildakoak erabat kiskalita daude baita autoak ere, horregatik ezinezkoa da nortzuk diren esatea. Autoetako bastidore zerbakiak hartu eta jabeak nortzuk diren bilatu beharko dugu. Jabeen izena jakin ondoren, autoan nortzuk joan zitezkeen aztertuko dugu. Hortzen fitxa edo osasun txostenaren arabera jakin ahal izango dugu nortzuk diren hildakoak».

Arratsaldean Bilboko Institutu Anatomiko Forensera eraman zituzten gorpuak Durangoko Instrukzio Epaitegiaren aginduz gaur bertan identifikazio lanetan segitzeko.

Zauritutakoak, bestalde, 49 izan ziren eta horietatik zenbaitzuz egora larrian daude. Pertsona horiek ambulanziaz zein auto partikularretan eraman zituzten Galdakao, Gurutzeta eta Basurtoko ospitaleetara.

ISTRIPUKO BIKTIMAK

Hildakoak —konfirmaturik—

Jose Herrero Del Rio
Borja Artiach Basterra
Pedro Lizarralde Gonzalez
Isabel Pildain Lazpita
Marcelino Granada Sanchez
Jesus Lopez Areta
Maria Angeles Basaguren Velaz
Maria Angeles Lopez Basaguren

Zaurituak

Galdakaoko ospitalean
Ingresaturik
Iratxe Zelaia Lopez
Esteban Irastorza Alustiza
Isabel Calvo Garcia
Alfonso Pereda Bordes

Altan

Ramon Vizeaino Ezkerra
Alberto Zelaia Ajuria
Dolores Simon Alfonso
Alberto Lopez Basaguren
Alejandro Ruiz Parra
Nerea Zubiria Ganboa

Gurutzetako ospitalean

Ingresaturik

Aurora Cortes Lopez
Leire Martinez Cortes
Rosa Aparicio Posada
Jose Antonio Gonzalez Velasco
Jon Mikel Mayor Martin
Carmen Latorre Castillo
Iñigo Lopez Simon
Ana M. Redondo Larrazabal
Unai Irastorza Redondo
Maria Jesus Uranga Maritxalar

Altan

Juan Lopez Uranga
Lorenzo Lopez San Miguel
Dolores Pereda Olabarrieta
Angel Pastor Del Hoyo
Juan Jose Zunzunegi Sarasola
Urko Ballester Serrano
Ekaitz Ballester Serrano
Idurre Ballester Serrano
Aurora Serrano Concejo
Ana Monasterio Torre

Felix Moreno Tejada
Maria Jose Flores Diez
Jose Flores Mayor
Nieves Diaz Broceña

Basurtoko ospitalean

Ingresaturik

Jose Ramon Noguera Lastra
Juan Aldama Gonzalez
Eduarne Laka Artetxe
Jone Gonzalez Calvo

Altan

Koro Abasolo Galdiz
Isabel Acebes Diez
Begoña Alonso Elgezabal
Nagore Aldama Acebes
Jose Antonio Heran-Rivas
Ana Francisco Moran
Egoitz Gonzalez Calvo
Jose Lanbarri Lopez
Antonio Olazabal Otegi
Enequina Velasco Leve
Jose Gonzalez Leizegi